

## Ermitako teilatua berritzen

Lanean ari dira San Gregorion ▶ 5



# Urteko lehen babarrunak jaso dituzte sukaldariek eta ikasleek

**TOLOSA** ▶ Santa Luziako baratzetan bildu zituzten atzo agintariek eta elkarteko ordezkariak ▶ 2



Orue, Julian, Sausta, Nicolas, Fronton eta Astelena jatetxeetako sukaldariak babarrunekin. IRATXE ETXEBESTE

**LEITZA** ▶

## Sendagile euskalduna eskatu du Udalak

Udal zerga-tasak ere onartu ditu ▶ 7

**TOLOSALDEA** ▶

## AHTren aurkako manifestaziorako deia luzatu dute eskualdean

Etzi izango da Donostian; herritarrek eta udal ordezkariak sinatu dute ▶ 6

LEIRE MONTES



## Asteburuetarako Gazte Topagune berria, laster

**TOLOSA** ▶ Larunbat eta igande arratsaldetan tailerrak, ikastaroak, jaiak, proiektzioak, txapelketak... izango dira Kultur Etxean ▶ 3

**VILLABONA** ▶

## Ikasle Eguna, herrian, azaroaren 20an

Kontzertu eta ekitaldi nagusiak Agaraitz auzoko karpan izango dira ▶ 4



**ZURICH ASEGURUAK**

MIGUEL LARRARTE PÉREZ

*Tituludun Aseguru Artekaria*

ETXEA • ISTRIPUAK • DENDAK • AUTOAK • BIZITZA  
INBERTSIOAK • OSASUNA • PYMES • ...

Tel.: 943 650546 • faxa: 943 655649 • mug. 655 724 978

Bulegoak: Gernikako arbola, 4 • 20400 **TOLOSA** • m.larrarte@euskaltel.net

## TOLOSAKO BABARRUNA ▶



# Lehen babarrun ale goxoak

Santa Luzia auzoan egin zuten bilketa atzo  
Tolosako sukaldariek Samaniegoko ikasleekin



## IRATXE ETXEBESTE

**H**aizea indartsu, euria eta eguzkia: udazkena heldu den seinale. Naturak paisaia zoragarriak eskaintzen ditu urte sasoi honetan, baina hori bakarrik ez; eman ditzakeen jakirik onenak ere ematen ditu: mahai baten inguruan eseri, ondo jan eta lagunarteko hitzaspertu ederraz gozatzeko aukera ematen duten horietakoak. Besteak beste, Tolosaldeko babarrunaz ari gara.

Izan ere, udazkenarekin batera heldu da babarrunak bilketez garaia, eta Tolosaldeko Udalak, horren jakitun, ekitaldi berezia prestatu zuen atzorako, babarruna nola biltzen den erakusteko. Tolosaldeko sukaldarien eta Samaniego ikastetxe-ko 6. mailako ikasleen eskutik jakin ahal izan genuen Santa Luzia auzoko Santa Lutzi Berri baserriko lursailera bildu ginen kazetariok babarrun biltzen nola jarduten duten hango eta hemengo baserritarrek.

Martxoan babarrun aleak erein zituzten ikasle horietek ziren atzo bilketa lanetan zebiltzanak. Guztira, 60 neska-mutil eskas. «Zenbat handitu diren landareak», zioten harrirituta. Ikaskide batek txantxetan jardun zuen gainerakoekin: «Berdeak ez dira hartu behar, e!», eta beste batzuk izututa ere antzeman genituen: «Zomorroak

dituzte landare hauek, ze nazka!».

Sukaldariek tentuz begiratzeten zieten urteko lehen babarrun aleei, eta egun modu askotara prestatu daitezkeela argitu zuten. «Ohiko eran, hau da, gure aiton-amonak egiten zituzten modura: lau bat orduz suabe-suabe sutan edukita, purean... jan daitezke babarrunak; hotzak ere bai». Garai batean bezala prestatzea zaila dela esan zuten sukaldariek kazetari batek, eta haiek sukaldarien jarduteko denbora hartu behar dela erantzun. Astelena jatetxe Peio Doyharzabal, Casa Julianeko Matias Gorrotxategi, Casa Nicolaseko Pedro Ruiz, Frontoneko Roberto Ruiz, Orue jatetxe Angel Oruegasti eta Saustako Mikel Zuaznabar izan ziren hitzordura agertutakoak, eta Tolosaldeko Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamentuko lehendakari Jose Miguel Gomez Elosegiren, Tolosaldeko Babarrunaren Ekoizleen Elkartearen lehendakari Mari Karmen Iradiren eta Tolosaldeko Babarrunaren Kofradiaren lehendakari Jose Inazio Telleriaren gonbita eskertuz, babarrunak Tolosaldean duen garrantziak ohartarazi nahi izan zuten. Gure Kaiola elkarte kide Josetxo Gabarain eta Carlos Lumberras ere izan ziren ekitaldi horretan.

## BABARRUNA

Erein zituztenetik zortzi hilabete behar izan dituzte babarrun landareek jasotzeko moduan izateko

bearn mantala soinean jarri, eta hara eta hona jardun zuen, babarrun biltzen ari zirenen euskarri. Saskia ez zuten aski, nonbait, eta haurrek nahiago zuten bildutako aleak alkatearen magalera eraman. «Gizon, gizon, hartu babarrun hauek!», esaten zioten.

Sukaldariek eta baserritarrek. «Bi kolektibo horiek bermatzen dute Tolosaldeko babarrunaren kalitatea. Bien arteko lankidetzaren emaitza da Kalitatea Fundazioak berriki Tolosaldeko azokari eman dion saria, Euskal Herriko nekazaritza produktuen kalitatearen berri eman eta zabaltzeagatik», esan dute udal ordezkariak harro. Baserritarrek erein dutena sukaldariek prestatzen dutelako; bata bestearen beharra duelako da behar-beharrezkoa lankidetzari hori. Zeren eta Tolosaldeko babarruna eskualdean eta eskualdetik kanpo ezagutzen bada, bi kolektibo horien arteko lankidetzari harremanagatik da, hain zuzen ere.

Martxotik azarora. Zortzi hilabete behar izan dituzte Samaniego ikastetxe-ko ikasleek, Juan Mari Arzak sukaldariarekin batera ereindako babarrun landareek hazi, eta puntu-puntu izateko. Erruz egin du euria martxotik hona, eta haizea eta eguzkia ere izan dira soberran. Horiek guztiek elikatu dituzte denbora tarte honetan Santa Lutzi Berri baserriko babarrun landareak, eta orain, zintzilik dituzten aleak jasotzeko moduan dira.

Atzo bildutako lehen lakaria enkantean jarriko dute ekimenaren sustatzaileek babarrunaren azokan. Gainerakoak laster izango dira dastatzeko moduan, baina lehenago lana erruz egin beharko dute baserritarrek guztiak jasotzeko.



## Maila oneko babarruna

Aurtengo babarruna maila oneko datorrela uste dute herriko sukaldariek, eta Santa Luzia Berriko baserritarrek ere iritzi berekoak dira. Koloreari eta aleen tamainari begiratzearekin aski zuten biek ala biek horretaz jabetzeko. Tolosaldeko alkate Jokin Bildarratzek areago jo zuen: «Hartu babarrun ale bat, igurtzi pixka bat eta begiratu zer nolako dizdira duen. Izugarria da. Prestatuz gero goxo-goxoa egongo da, ziur».

Trajez jantzita azaldu zen Santa Luzia auzoko baserriko lursailera alkatea, eta lokatz artean sartzerakoan ez zuen birritan pentsatu: baserriko ja-

GAZTERIA ▶

**GAZTE TOPAGUNEA ▶ GEHIAGO JAKITEKO**

**ZER DA?**

▶ Aisialdi dinamiko eta alternatiboa garatzeko gunea: lagunartean egoteko, lagun berriak egiteko, asmoak eta ideiak gauzatu ahal izateko...

**NORI DAGO ZUZENDUTA?**

▶ 13 eta 17 urte bitarteko gazteei.

**ZER TOPA DAITEKE?**

- ▶ Zenbait ekintza: tailerak, ikastaroak, proiektuak...
- ▶ Jai eta txapelketa bereziak: musika, kirola...
- ▶ Irteerak; eskia, kirol abenturako ekintzak...

**NON EGONGO DA?**

▶ Kultur Etxeko azpialdean.

**NOIZ DAGO ZABALIK?**

▶ Hilaren 13an, larunbata, inauguratuko dute. Larunbat eta igande arratsaldetan egongo da zabalik, 16:30etik 20:30era.

**ZER HELBURU DITU?**

**Aisialdi dinamiko eta alternatiboa garatzeko gune izan.**

- ▶ Gazteak elkartzeko gune bat sortu.
- ▶ Aisialdi parte-hartzaile eta kreatiboa oinarri duen

programazioa sustatu, dinamizatzaile eta gazteen artean antolatua eta garatua.

▶ Gazteen garapenari garrantzia emanez, baloreak, jarrerak eta giza trebetasunak bultzatuz.

▶ Gazteen eskura baliabideak eta informazioa eskaini.

▶ Gazteria sailak, bere sailek eta herriko taldeek antolatzen dituzten ekintzen ezagupena eta zabalpena bultzatu.

**Gazteengan euskararen erabilera bultzatu.**

▶ Euskararen erabilera eta hizkuntzarekiko joera sustatuko duen dinamika bermatu.

**Tolosar izaera parte-hartzailea sustatu.**

▶ Tolosari buruzko ezagutza

bultzatu. Herrian antolatzen diren ekintzak zabaldu.

▶ Tolosako dinamika eta jaietan txertatu, gazteen inplikazioa sustatu.

**Gazte ekimenetarako gune izan.**

▶ Gazteentzako ekintzak garatzeko espazioa.

▶ Gazteek antolatutako ekimenetarako gunea.

**NOLA EMAN IRITZIA?**

▶ topatolosa@euskalerra.org  
posta elektronikoa eta 943 67 03 83 telefono zenbakian.  
Behin irekita, Gazte Topagunean bertan ere proposamenak egiteko aukera izango dute gazteek uneoro.

IKASTAROA ▶

**Begirale ikastaroan izen-ematea amaitzean**

Laskorain Ikastolak eta Kazkabarra taldeak, Urtxintxa eskolaren bidez, aisialdiko begirale ikastaroa antolatu dute. 200 orduko ikastaroa da; ikasturte honetan jasoko dituzte eskolak, eta udan praktikak egiteko aukera izango dute ikasleek. Saiok ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan izango dira, ikastolan. Leku gutxi daude libre eta, beraz, interesa duenak lehenbailehen 677 48 99 71 telefono zenbakian izena eman dezala eskatu dute antolatzaileek.

ZINE-KLUBA ▶

**‘Vias cruzadas’, gaur, zine-klubeko saioan**

Azaroko zine-klubeko programazioari ekingo diote gaur, 21:30ean, Leidorren. Gaurko saioan Thomas McCarthy zuzendariaren *Vias cruzadas* (*The station agent*) filma izango da ikusgai.

ERAKUSKETA ▶

**‘Beldurraren aretoa’, gaurtik Kultur Etxean**

Gaur arratsaldean zabalduko dute Kultur Etxean *Beldurraren aretoa* erakusketa. Haur Liburutegiak antolatu du, eta hilaren 29ra arte egongo da ikusgai, 17:00etatik 20:00etara.

UDALA ▶

**Herrian dauden GKE-*ei* Udalaren diru laguntzak**

Tolosako Udalak herrian ordezkari izan dauden Gobernu Kanpoko Erakundeentzako (GKE) diru laguntza deialdia egin du. GKE-en funtzionamenduari eta egindako ekintzen arabera emango dituzte dirulaguntzak. Eskaearak aurkezteko epea zabalik da, eta haren 15a da azken eguna. Eskaearak aurkezteko ereduak eta informazioa jaso nahi duenak Osasun eta Gi-zarte Zerbitzuetako departamendura jo behar du edo 943 69 74 60ra deitu —astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara—.

# Gazte topaleku berria

Hilaren 13an irekiko ditu ateak Gazte Topaguneak, Kultur Etxean; asteburu arratsaldetan egongo da zabalik; aisialdi dinamiko eta alternatiboa garatzeko gune izan nahi du



Ezker-eskuin: Marta Lasa Kili-Koloko ordezkaria eta proiektuaren arduraduna, Amaia Diaz-Mingo eta Ana Irisarri dinamizatzaileak eta Nerea Cereceda Udaleko Gazteria teknikaria, atzo, aurkezpenean. L.MONTES

**LEIRE MONTES**

Elkartzeko, lagunartean egoteko, ideiak proposatzeko eta haien gustuko ekintzez gozatzeko gune berria izango dute laster herriko gazteek. Hilaren 13an, larunbata, zabalduko ditu ateak Tolosako Gazte Topaguneak, Kultur Etxean; eta larunbat eta igande arratsaldetan egongo da zabalik gazteentzako topaleku berriak. Proiektuaren nondik norakoak aurkeztu zituzten atzo Udaleko eta Topaguneko ordezkariak.

Horrelako proiektua gauzatzeko ideia duela bi urte baino gehiago sortu zela gogoratu

zuen Nerea Cereceda Udaleko Gazteria teknikariak: «Orain dela bi urte gazteriar buruzko txosten bat egin zen. Ondorio horiek eta Gazte Gunean bildutako erreflexioek herrian gazteentzatzat zenbait hutsune zeudela utzi zuten agerian». Horietako bati, hain zuzen, erantzuten dio Gazte Topagunearen proiektuak: «Asteburuetan eta jai egunetan nerabeentzatzat aisialdi eskaintza falta zen, eta horri irtenbidea emateko lanean jarri ginon». Andoaingo Kili-Kolo enpresak irabazi zuen lehiaketa publikoa, eta haiek diseinatu dute proiektua.

Kili-Koloko ordezkari eta

proiektuaren arduradun Marta Lasaren esanetan, «aisialdi dinamiko eta alternatiboa garatzeko gune izan nahi du Topaguneak». 13 eta 17 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta. Bi dinamizatzailek izango dute gazte topaleku berriaren arduraria: Ana Irisarri eta Amaia Diaz-Mingok; baina «benetako protagonistak gazteak» direla azpimarratu zuen behin eta berriro Lasak.

Hain zuzen ere, gazteen iritzien, nahien eta proposamenen arabera osatuko dute programazioa, eta haiekin zehaztuko dituzte ekintzak. «Gazte Topagunea gazteak egoteko

gunea izatez gain, etortzen diren gazteekin batera aisialdi kreatibo baterako ideiak bultzatuko ditu. Ekintzak gazteen eta dinamizatzaileen proposamenak uztarturik antolatuko dira». Oraingoz, inaugurazio egunekoak programatu dituzte: DJ emanaldiek eta Zozongo perkusio taldearen kalejirak alaituko dute giroa, 16:30etik aurrera.

Herriaren errealitateari, sasoi bakoitzeko gertaera edo data berezietara ere egokituko da Topagunea: «Egitaraua herriko errealitatea eta ekintzak errespetatuz zehaztuko dugu. Osagarri izan nahi dugu». Gabonetako oporrak aprobetxatuz, esaterako, ekintza betetako astea antolatu nahi dute dinamizatzaileek, gazteekin batera; abenduaren 27tik 30era iraungo dute ekitaldiek.

**Ezagutaratze kanpaina**

Gazte Topaguneak ateak zabaldu bitarte, ezagutaratze kanpainen murgilduta daude arduradunak. Herriko talde eta eragileekin, aisialdi taldeekin eta ikastetxeetako arduradunekin bildu dira, besteak beste. Gazteengan ere jo dute, proiektua aurkezteko, dinamizatzaileak ezagutzera emateko eta ekarpenak jasotzeko asmoz. (Informazioa zuzenean jaso dezaten da gure asmoa, haiengana gerturatu. Iritziak eta proposamenak emateko eta haiei interesatzen zaien esateko aukera badutela jakitea nahi dugu). Laster, Topaguneari buruzko informazio liburuak ere jasoko dute gazteek etxean.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

# Ekitaldiz beteriko Ikasle Eguna antolatu dute azaroaren 20an

Ikasle Abertzaleak-ek, besteak beste, kontzertua, bertso saioa, manifestaldia eta bazkari herrikoa prestatu ditu



Ikasle Abertzaleak-eko kideak aurkezpenaren une batean, Donostiako Gaztegunean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Ikasle Abertzaleak erakundeak berriro aukeratu dute Tolosaldea Ikasle Eguna egiteko. Iaz Alegian egin bazuten, aurtengoa Villabona izan da hautatu-

tako herria eta azaroaren 20a, eguna. Ikasleen Nazioarteko Eguna dela eta —azaroaren 17an izaten da— antolatzen dute ekitaldiz beteriko eguna.

*Guk, hemen, orain... historia idatziko dugu* da aurtengo le-

loa eta «aldarrikapena eta festa uztartu» nahi dituzte.

Ekitaldiak herri guztian zehar izango dira. 11:00etan izango da harrera ekitaldia eta ordu erdi ondoren mundu mailako eta Euskal Herriko ikasle

## EGITARAUA ▶

**11:00.** Harrera ekitaldia.  
**11:30.** Mundu mailako eta Euskal Herriko ikasle borroken erakusketa.  
**12:15.** Ikasle olinpiadak, Errebote plazan.  
**14:30.** Bazkari herrikoa, Ikastolako arkupetan.  
**17:00.** Herriari begirako bertso saioa, Gurea Aretoan.  
**17:30.** Kale animazioa: tinbaleroak, buruhandiak, erraldoiak, ...  
**19:30.** Manifestaldia.  
**20:30.** Ekitaldia karpan.  
**21:30.** Kontzertu erraldoia, karpan: Marea, Las Niñas, Kauta, Hamlet eta Eraso.

borrokei buruz jakiteko aukera izango da erakusketa baten bitartez. Errebote plazan ikasle olinpiadak egingo dira 12:15etik hasita.

Ondoren bazkari herrikoa, Ikastolaren arkupetan. 17:00etan, Gurea aretoan herriari begirako bertso saioa. Kale animazioa herrian zehar, 17:30etik aurrera. Manifestaldia ere izango da arratsaldean. Ondoren, Agaraitz auzoan jarriko den karpa erraldoian ekitaldia egingo da eta 21:30ean kontzertua hainbat talderekin: Marea, Las Niñas, Kauta, Hamlet eta Eraso.

Kontzertura joan nahi dutenek, aurretik sarrerak erosteko aukera izango dute eskualdeko hainbat tabernetan. Villabonan, Iratzar; Tolosan, Raku eta Denak; Alegian, Iskiña; eta Ibarrran, Atari. Aurretik erosiz gero, 12 euro ordaindu behar da eta karpan bertan 15 euro.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaldia.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldeia.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20

### Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GARRIAOK

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** I. Santamaria. Nafarroa etorbidea 2 (Tolosa). 65 46 10. A. Gimeno, Elbarren 52 (Leitza). 112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona\_aiztondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoetaldia.** 687 41 00 22 anoetaldia@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarraldeia.** 687 41 00 32. ibarraldeia@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzaldeia.** 687 41 01 18. leitzaldeia@tolosaldeko hitza.info

VILLABONA ▶ KIROLA

## Mayo, Landaluze eta Alberto Martinez, gaurko mahai-inguruan

Felix Ugaldek gidatuko ditu solaskideak Gurea aretoan, Irrintzi elkarteak antolatuta

I. GARCIA

Irrintzi Elkarteak antolatu dituen VIII. Txirindularitzari buruzko Jardunaldiak aurrera darrate eta gaur hirugarren mahai-ingurua egindoa da Gurea aretoan, 20:00etan. Txirindulari ezagunak izango dira solaskideak: Euskaltel-eko Iban Mayo eta Iñigo Landaluze eta

Relax taldeko Alberto Martinez.

Atzoko mahai-ingurua euskaraz izan zen eta bertan parte hartu zuten Patxi Vila, haimar zubeldia, Iñigo Chaurreau eta Mikel Astarlozak.

Bestalde, herenegun egindako afizionatuen mahai-inguruan aurtengo denboraldiko afizionatu hoberenaren saria



Uzkudun, Agirrezabalaga, Otxotorena, Anton eta Azanza. KARLOS

eman zitzaion Xabat Otxotorena hernaniarrari. Bere ondoan izan zituen Joseba Agirrezabalaga anoetarra, Igor Anton eta

Jorge Azanza. Saria eta oroigarriak banatzen Mikel Uzkudun Irrintzi Elkarteak antolatuta aritu zen.

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai lurren. Pisu bajua, 2 gela, egongela, sukaldia aitzariek, komun bat eta balkoi handia. Deitu: 656 78 23 25.  
**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.

### GALDUTAKOAK

**Ardiak.** Alegiko baserri batetik ardiak faltatu dira. Inork ikusi baditu, deitu: 635 20 36 78.  
**Txakurkumea.** Hiru hilabete baxurkumea galdu da Gaztelu eta Berastegi artean. Deitu: 943 67 20 10 edo 943 67 58 72.



GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Kultura auzolanean

Anoetako ezker abertzaleak irizpide argiak izan ditu azkeneko urteetan, herriko kultur jardueri dagokienez: herritarren parte-hartzea bultzatzen duten ekintzek dute lehentasuna guretzat, bai herritarren eta bai herriko taldeen arteko loturak sendotuko dituzten ekintzek. Orain ere, irizpide berberetan oinarrituta begiratzen diogu herriari, eta, horrenbestean, azkeneko udal hauteskundeek hona kultur jarduerak izan duten bilakaera baloratzera gatoz.

Anoetan, joan diren urteetan, herritar asko bildu dituzten ekintzak egin dira: festetako bertso-antzerkia, Kalderero eguneko dantza-soka... Horietan, anoetarrok ez ginen parte-hartzaile soilak, egin ere herritarrok egiten baikenituen ekintza horiek. Gainera, era guztietako jendea bilduzten zuten: adin askotakoak, kuadrila ugariatakoak... Azken batean, herritarrok ginen ekintza horien protagonista. Azkeneko urte honetan, ordea, ekintza horiek bertan behera geratu dira. Aldaketa hori nabaria da guretzat, eta baita anoetar askorentzat ere.

Zer gertatu da urtebete pasatxo honetan herrian, kultura mailan horrelako eragina izateko? Gure ustez, anoetarrek aspaldi erakutsia dute ekintza horietan

parte hartzeko gaitasun eta gogo bizia. Herriko taldeek, bestalde, ekintza asko egiten jarraitu dute aurten, beti bezala. Aldaketaren arrazoiak ez datza bi sektore horietan beraz.

Gure iritziz, Udalaren jarduna izan da aldaketa horren eragile zuzena. Izan ere, herritarren eta taldeen lanaz gain, Udalaren «motor lana» behar-beharrezkoa izan da beti, jende asko eta lan talde handia mobilizatzea eskatzen duten ekintza horiek aurrera eramaterakoan.

Gaur egun, Anoetako Udalaren jardunak, kulturari dagokionez, hutsune latzak dituelakoan gaude. Eta, azken finean, herria bera da hutsune horien eragina pairatzen ari dena.

Herritarren artean pixkanaka eta ahalegin handiz erroturiko ekintzak bertan behera geratzeko kalte garrantzitsuak ekarri ditu eta ekarriko dituela iruditzen zaigu; izan ere, urtetan lortutako dinamikari bere horretan eusten ez badiogu, geroz eta zalagoa izango da hori berreskuratzea.

Horixe izan da gure balorazioaren emaitza. Baina ez gaude balorazio huts horretan geratzeko prest. Esana dugu Anoetako ezker abertzaleak irizpide horiei gogor eusteko helburua izan duela beti. Eta, orain ere, Udaletik egin ezin badu ere, Anoetarrok Auzolanean plataformak irizpide horietan oinarritutako ekintzak berreskuratzeko asmo betea du.

Azken urte eta erdi honetan askotan esan dugu PNV-EAK osatzen duen Udalak gure esku-biderik oinarritzkoenak urratu dituelakoan gaude; hala ere, ez ditugu geure ardurak zaku berera botatu nahi.

Hemendik aurrerakoan, beraz, Anoetan, kultura mailan, ikusi ditugun hutsuneak betetzen saiatuko gara.

Ezin dugu ahaztu, halere, gure gaur egungo egoera ez dela lan horri ekiteko egokiena. Horrexegatik, bada, guztion laguntza eskatu nahi dizuegu, bai herritarrena, bai herriko taldeena. Anoetako hutsuneak anoetar guztion hutsune baitira.

ANOETARROK AUZOLANEAN PLATAFORMAKO KULTURA TALDEA ▶ ANOETA

ALBIZTUR ▶ HIRIGINTZA

# Baselizako teilatua berritzen ari dira

San Gregorio baselizako teilatua konpontzeko lanak aste honetan bertan amaitzea espero du Udalak



Orain dela astebete hasi ziren herri sarreran aurkitzen den baselizako teilatua konpontzen. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Pasa den ostegunean, urriaren 28an hasi ziren San Gregorio baselizako teilatua konpontzen: «Egoera kaskarrean aurkitzen zen eta ezinbestekoa zen konponketa», azaldu dute udaletxetik.

Lanak aurreratuta daude eta «aste honetan bertan amaitzea» espero dela zehaztu dute udaletxetik. Azaroaren 17rako, San Gregorio Egunerako, dena prest egotea espero dute. Izan ere, egun horretan meza izaten da aipatutako baselizan.

Teilatua konpontzeko 26.124

euroko (4.350.000 pezeta inguruko) aurrekontua du Udalak.

Teilatua konpondu aurretik bestelako lanak ere egin dira San Gregorioko ermitan. Santuaren irudia kolorea galduta zegoela eta zaharberritzera eraman zuten; Gipuzkoako Elizbarrutiak egin zuen lan hori.

BALIARRAIN ▶

## Bi mintegi azaroan zehar, KZgunean

Azaroan zehar bi mintegi egingo dituzte KZgunean. Astelehenean, azaroaren 8an, *Prestatu zure platerak* titulupean errezeta desberdinak Interneten aurkitzen ikasteko aukera izango dute KZgunera gerturatzen direnek; mintegi hori 11:00etatik 13:00etara izango da. Azaroaren 22an Kutxanet izeneko mintegia egingo da; hau ere, 11:00etatik 13:00etara bitartean izango da.

ALEGIA ▶

## X. mendi irteera antolatu dute iganderako

Alegiako Mendi Asanbladak urteko X. mendi irteera antolatu du iganderako, azaroaren 7rako. Madarixatik (1.625 m.) abiatu eta Azpeitian amaituko dute ibilbidea; ibilbidean, Xoxote (899 m.) eta Erlo (1.026 m.) mendiak igoko dituzte. Goiz osorako irteera izango dela zehaztu dute Mendi Asanbladako kideek. Irteeran parte hartzeko asmoa dutenek 08:30ean Ton-tokalean egon beharko dute; itzulera 15:30ak aldera izango dela zehaztu dute.

ALEGIA ▶

## AHT gelditu!-k egindako deialdiarekin bat

Alegiako Udalak AHT gelditu! Elkarlanak etzirako, azaroaren 6rako, Donostian antolatu duen deialdiarekin bat egiten duela jakinarazi du. Herrian zehar hori azaltzeko orriak jarri ditu, gainera. *Esan bai AHT gelditzeari!* lelopean egingo da manifestazioa larunbatean. Herritar guztiei «egun horretan egingo den manifestazioan parte hartzeko gonbitea» ere luzatzen du Alegiako Udalak.

ALEGIA ▶

## Bizimodu osasuntsurako giltzarriak hizpide

Moirra Zeberio tolosarrak gaur eskainiko du *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako giltzarriak* hitzaldia. Bertan, bizimodu osasuntsuagoa lortzeko funtsezko ohiturak emango dira ezagutzera: oroimena lantzeko ariketak, komunikazioa garatzeko gomendioak, elikaduraren inguruko informazioa, ariketa fisikoa egitearen onurak... landuko dira. Gipuzkoako Kutxa Ikasgelak antolatutako hitzaldia 16:30ean izango da.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



## ABIADURA HANDIKO TRENA ▶

## ZER IRUDITZEN ZAIZU AHT-K TOLOSALDETIK IGAROTZEKO DUEN PROIEKTUAK ? ▶

OLATZ AMONDARAIN  
ALEGIAKO ALKATEA

«Beste gizarte eredu bat planteatzen dute»



«AHT-aren proiektuaren kontra nago ingurumenaren eragingo lituzkeen ondorio txarregatik. Gainera, AHT-rekin beste gizarte eredu bat planteatzen dute».

A.M. PEÑAGARIKANO  
BERTSOLARIA

«Onura hainbestekoa izango al da?»



«Hainbeste txiki-zio zenbaterainoko onura ekarriko digute? Hori da nik luzatzen dudana galdera, eta gainera, informazio zehatza ematea eskatuko nuke».

EDURNE PASABAN  
MENDIZALEA

«Informazio gutxi ematen digute»



«Beharbada aurrerapen bat izango da, baina AHT-ren proiektuarekin ez nago batere ados. Herritarrok zailtzak ditugu proiektuaren nondik norakoei buruz».

AITOR EZKERRA  
TABERNARIA

«Mendiak hondatzea ekartzen du honek»



«Ez dut esaten proiektua aurrera ateratzen bada ez denik erabilgarria izango, baina hori guztia aurrera ateratzeko egin behar denaren kontra nago erabat».

## AHT-ren aurkako ekimenekin aurrera

Erakunde, udal ordezkari eta herritarrek sinatu zuten ekimenaren alde; etzi egingo da Donostian manifestazioa



Udal eta erakundeetako ordezkariak nahiz herritarrak bildu ziren ekimenarekin bat egini. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Asteartean, Tolosako Kultur Etxean hainbat udal hautetsi eta gizarte talde, kultur elkarte eta sindikatu eta alderdietako ordezkariak eta herritarrek agerraldia egin zuten. Agerraldian, erakunde eta ordezkari desberdinek ekimenaren aldeko sinadura emateaz gain, etzi,

larunbata, azaroaren 6an, Donostiako Boulebarretik abiatuta, AHT gelditzearen alde egingo den manifestazioarekin bat egin eta mobilizazio horretan guztiei parte hartzeko deia egin zuten.

Larunbatean, 18:00etan, AHT gelditzearen alde hainbat talde biltzen dituen AHT Gelditu! Elkarlana taldeak deitutako

manifestazioan, «euskal gizartearen AHT-ren inguruan dagoen desadostasuna adierazi eta ingurugiroan, gizartearen, ekonomian, nekazaritzan eta lurraldearen orekan kalte larriak eragingo lituzkeen makroproiektuan Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak dabilten jokabide inposatzailea arbuaituko dira».

«Hilabete gutxi barru Gipuzkoan abian jartzeko mehatxu egiten duen Eusko Jaurlaritzak salatzeko» mobilizazio indartsua bultzatu, eta era berean mezu zabaldu nahi dute, kontuan hartuta «AHT Tolosaldean, Euskal Herrian, egitasmerik gaitzetsi eta krikatuena dela eta ugariak izan direla azken urteetan, AHT-ren kalte ekologikoak eta sozialak salatzen diren herri ekimenak».

Mezu honetan, AHT-ren aurka aritzeko funtsezko arrazoen berri ematen da. Batetik, «ingurumen eraso latza» dela aipatzen da; «AHT-k lurriaren eraso, baliabide energetikoak xahutu, eta gizarteak naturarekiko harremanetan egun bizi duen krisia areagotzea baitakar. Bestetik, «kontuan hartu behar da AHT-ren sarea korridore nafarraren lotunearekin osatzeko alternatiba eta bigarren proiektuaren arabera 23 km. eraikiko liratekeela». Hirugarren puntuan, «edonolako lurralde antolamendu deszentralizatu eta orekatuaren deskalabrua ekarriko lukeela» aipatzen da. Gainera, «EAE, Europako garraio fluxurik handienetakoa bilduko lukeen sakrifikatutako lurralde bihurtu nahi dute». Eta azkenik, «informazio gardentasun eza»,

Horregatik guztiagatik, larunbateko manifestazioan parte hartzeko deia egiten dute.

## TOLOSA ▶

## Hitzaldiak, 100 urte betetzen dituelako ermitak

Izaskungo ermitak datorren igandean 100 urte betetzen dituela-eta, ekitaldi bereziak prestatu dira egunerako. Hala ere, egun hori iritsi aurretik, hainbat hitzaldi antolatuta dira. Gaur, 20:00etan *La religiosidad de las ermitas marianas* izenburuarekin emango Santa Mariako parroki etxean Edorta Kortadi adituak hitzaldia.

## BERASTEGI ▶

## Zahartzeari buruzko hitzaldia Gaztainondan

Gaur, 17:30ean Berastegiko Gaztainondo jubilatuen elkartearen *Zahartzearen berezko aldaketak* hitzaldia izango da entzungai Jose Luis Martinen eskutik. Hitzaldi honen helburua zahartzeko prozesuak ekartzen dituen aldaketak ezagutzera ematea eta zahartze hori aktiboa izan dadin kontuan izan beharrezko jokabide egokienez informatzea. Bestalde, jarraituko diren puntuak honako hauek izango dira: zergatik zahartzen gara?, zahartzetik ondorioztatutako arazoak, zahartzearen ematen diren, arrisku-faktoreak eta arrakastatsu zahartu ahal izateko prebentzioa. Beti bezala, hitzaldira-ko sarrerra doakoa izango da.

## IBARRA ▶

## ‘Antes que anochezca’ filma gaur ikusgai

Ibarrako zine-klubak aurrera darrari eta gaur *Antes que anochezca* pelikula izango da ikusgai, ostegunero bezala, 21:45ean Ibarrako Gazte-txean.[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera berria:

zer nahi duzu egitea Leidorren? Zer diozu Tolosako kultur azpiegiturei buruz

MULTIZINEMA ▶ UTZI ▶ BERRITU ▶ IPARRAGIRREN ZER? ▶ TXOTXONGILOAK?

LEITZA ▶ UDALA

# Herrira sendagile euskalduna etor dadin eskaera egitea erabaki da udal batzarrean

Ostiralean burututako batzarrean hartutako akordioa da, UPNren aurkako bozkak jaso arren; bestalde, hurrengo urteko zerga-tasak ere onartu dituzte

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo ostiralean udaletxean burutu zen hilabeteroko ohiko batzarrean, Leitzako osasun-zentrura, sendagile erdaldun bat etorri izana salatu zuten eta horren berri emateko Osasun Kontseilariari eta bere departamenduko Zuzendari Orokorriari bilera eskaria egiteaz batera, «neurriak hartu ditzatela sendagile euskaldun bat bidali ahal izateko», ere onartu zuten.

Erabakia ordea, ez zen aho batez hartutakoa izan. Bertan zeuden UPNko lau ordezkariak aurkako bozka eman zuten, beren esanetan «profesionalki izan dezakeen egokitasuna, euskararen balorazioa baino garrantzitsuagozat» joz, «euskarak badaki, hobe», erantsi arren. Gainerako talde politikotako kideek, aldiz, (batzuk mahaitik bertatik eta besteek jendartetik), guztiz bestelako iritzia defendatu zuten («profesionaltasuna ez baino, jokoan hiritarren eskubideak») zeudela argudiatuz, zehazki «hiritarrak arreta euskaraz jasotzeko duten eskubide berriz ere zapaldua», zioten.

Administrazio Publikoetako Euskararen Erabilpenerako Foru Dekretuak, zehazki bere 10. artikuluan, «hiritarrekin izan beharreko hitzeko komunikazioei dagokienez, funtzionarioek haiek aukeratutako edozein bi hizkuntza ofiziletan eman ahalko dute arreta» dio testuan.

## Ahal izateko, jakin behar

Hain zuzen ere, horixe izan zen, gertatu zen eztabaidaren mui-na. Batzuek zioten, dekretuan idatzita dagoen «eman ahalko dute» horrek, inor ere ez zuela behartzen euskaraz jakitea, hori nahi izanez gero, «eman beharko dute» jarri beharko zukeela eta ez zela kasua, ondorioz, beren ustez Nafarroako Gobernua legez jokatzeko ari zela defendatu zuten. Horren aurrean, «bi hizkuntza ofizilen artean edozeinetan arreta eman ahal izateko, lehendabizi jakin egin beharko dute, bada?» erantzuten zieten besteek. «eta gero aukeratu 'ahal- rrek» erantsi. Horrekin lotuta, Euskararen Legea ere hizpide izan zen, hor onartuta



Leitza euskalduna da. J. ASTIBIA

dauden hiritarrak dituzten hizkuntza-erabileraren inguruko aipamena eginez eta kasu honetarako, erabat ukatzen duela argudiatuz.

Aipatu legeak «hiritarrak administrazioarekin izan dituzten harremanak beraiek aukeratutako bi hizkuntza ofiziale-tatik aukeratutakoan izateko eskubidea dute», dio eta «administratioarengandik jasoko duten arreta, beraiek —hiritarrak— aukeratutako hizkuntza ofiziale-tatik edozeinetan jasotzeko eskubidea dute», ere bai.

Alegia, hiritarrak berak aukeratzen duen hizkuntzan izan dezake hartu-emana administratioarekin, bai arreta eskatzerakoan eta baita jasotzerakoan ere.

«Gaztelera egitea erabakitzen badu, bermatuta du eskubidea. Baina euskaraz egitea aukeratzen badu, bermatuta dauka eskubide hori bera? Nola, aurrez-aurre dagoen administratio publikoko langileak ez badu euskaraz hitzik ere egiten? Zaila, oso zaila ere!», hain entzun zenez.

Gauzak horrela, gai honetan adostasunik ez zela ikusirik, bozketa burutu zuten eta gehiengo hartu, salaketa egin eta honen berri dagokionari emateko erabakia.

## Zerga eta tasak ezarri

Beste puntuen artean, hurrengo urteko zerga eta tasak erabazteko zuten egitekoa. Horrela, gaia arloz arlo aztertu eta eztabaidatu ondoren, guztien baiezeko bozkarekin, onartu egin zituzten.

Kontuak kontu, herritar guztiengan eragina duenez ezagu-

ena den hirilur kontribuzioa, esate baterako, ihazko moduan, aurten ere KPI delakoa eta 2,5 igotzea onartu zuten. Landalurrena, berriz, KPIaren igoerarekin. Jarduera ekonomikoaren zerga eta, Eraikuntza, istalazio eta obren zerga berriz, berdin mantentzeko erabakia hartu zuten, azken honen kasuan, ordenatza berri bat prestatzeko egitasmoa azaldu bazuten ere.

Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen tasei dagokienez ere, ur-zaborrak direla, dokumentazio eta istantziak direla, lur-publikoaren okupazioa dela, hilerria dela... horrelakoentzat ere kasuan kasu aztertu eta beste hainbeste erabaki zuten. Guzti hauen artean, lur publikoa okupatuz, herrigunean utzita dauden ibilgailu eta tresnei erreparatu zieten, horien jabeak ohartu eta lekutzea «gonbidatzeko» intenziotz, tasa berezi batzuk ezarri ote zitezkeen aztertuz, arazoa nabarmena dela argudiatuz. Horretarako jada bai omen dagoen prozedurari eustekoan gelditu ziren.

Aspaldiko urteetan hasita dauden hainbat lur trukaketen espedientei ere eman zieten errepasoa, besteak beste. Horrela, ohi bezala, ostiralekoan ere aurreko batzarren aktak onspena egitean, aipatu behar da, harrobien inguruko herritarrei zegoen puntua aitazuz, «eman zen emaitzarekin ados ez egoteagatik» UPN taldeak «idatzi bat» erantsi nahi izan ziola, eta idazlarik prozedura ez zela bidezkoa esanez egindako oharpenaren ondorioz, hurrengo batzarre-rako utzi zuten.

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

### ETXEBIZITZAK

**Alegia.** Ebebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** Ebebizitza, 75 m<sup>2</sup>, bi logela, 23.800.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, sukaldea, igogailua, 12 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Corella.** Ebe abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Porbarekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldetz hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m<sup>2</sup>-ko terrenearekin. Pizina eta guzti. Eta gainera batzuk bimeneta dotorea. 13.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako

ebebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. polita. 31.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean, 3 logelako ebebizitza, baratzarekin. 22.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Argindegi auzoan, 3 logelako ebebizitza, berogailuarekin eta altzariz guztiz hornitua. 27.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Jaca.** 110m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, 4 logela, trastelekua eta garajearekin. 180.000 euro. Mandio. 669 87 19 09.

**Lerin.** 70 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza berriak, 25 m<sup>2</sup>-ko porbarekin, ura eta argia jarriak eta 3.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Mandio. 669 87 19 09.

**Ordizia.** 70 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza. 3 logela, sukaldea, bainugela, sarrera eta igogailuarekin. 29.870.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Santa Klaran 111 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m<sup>2</sup>-koa, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean ebebizitza batzuk, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai. 15 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin, teilatu berrieta, berogailuarekin. 26.000.000pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Laramendi kalean 65 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, sukaldea altzariez hornitua, kanpo aldera begira, 2 logela, igogailua eta trastelekua. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Araba etorbidean 97 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza salgai, bizitzera sartzeko, balkoi handia eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Leku hoberean, erabat kanpokaldera, atikoa, 85 m<sup>2</sup> gehi 50 m<sup>2</sup>-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, kalefazioa eta igogailua. 68.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foruen ibiltokian 210 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza salgai, 5 logela, berogailua, igogailua eta 2 bainugela. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Lurre auzoan. 33 m<sup>2</sup>-ko bokoa, 10.000.000 pta, tartepiantan. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean ebebizitza, 210 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foruen ibiltokia, erabat berrituta

ebebizitza, 2 bainugela, igogailua, egongela, 3 logela, sukaldea eta gela bat bulegorako erabilgarria.130 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean ebebizitza berritzeko. 19.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean, 2 gelako ebebizitza, polita sartzeko prest, 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean, erabat berrituta apartamentua, bizitzera sartzeko. 28.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Amaroz auzoan, ebebizitzaK salgai 80 m<sup>2</sup>-rekin, igogailuarekin, 37.500.000-40.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Txarama.** 100 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, 3 logela, altzariz hornitutako sukaldea, bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Ebebizitza berria 80 m<sup>2</sup>, garajea eta trasteroarekin Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Ebebizitza 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, bainugela eta sukaldea. 23.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Zaldibia.** 3 gelako ebebizitza kanpokaldera, igogailua eta trastelekua. 25.500.000pta. Mandio. 669 87 19 09. 80 M2

### NEGOZIOAK

Funtzionamenduan dauden sagardotegi batzuk salgai, Usurbil eta Oiarzun inguruetan, ebebizitza eta guzti. Mandio. 669 87 19 09.

### LOKALAK

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Errementeari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Lokalak salgai, Laskorain kalean, altzariz hornitutako sukaldea, bizitzera sartzeko. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Lokal berria, 35 m<sup>2</sup>, sukaldetz hornituta, terraza. 16.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

### LURSAILAK

10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio. 669 87 19 09.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 4a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzokia, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Atzo, Amezketza, Anoeta, Ballarain, Belaurta, Berastegi, Elduain, Herrialde, Iturrutzu, Leizor, Leizor, Lizarza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zizurkil.

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza.  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzera

14

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### AFARIAK-BAZKARIAK

**Ibarra.** Hauspoa kultur elkarteak igandera babarrun festa antolatuta du: herri kirolak eta babarrun jatea. Txartelak aurretik erosi tabernetan.

**Tolosa.** Jesusen Zerbitzariaren ikasi zutenek urteko bilera izango dute igandean. Meza izango da komentuan 11:30ean eta bazkaria Usabal sagardotegian. Izen-ematea 943 67 30 81 telefonoan.

**Tolosa.** Azaroaren 13an urteroko afaria egingo dute Zezen-plaza ingurukoek. Izen-ematea ohiko tokietan.

**Tolosa.** Denboraldi amaierako afaria egingo dute Tolosa CFko zikloturistek hilaren 27an. Izen-ematea: 943 655092 edo 649 406085 (Dani).

**Tolosa.** Azaroaren 13an, Engomadora Moderna enpresako langile ohiek bazkaria egingo dute Fronton jatebean. Izen-ematea 943 674669, 943 117010 eta 943 651955 telefonoetan.

**Tolosaldea.** Azaroaren 7an Telleria abizena dutenek urteko bilera egingo dute Liernin, 13. urtez. 12:30ean meza eta 14:00etan bazkaria izango dute Mujika jatebean. Ondoren adin handienekoak omenduko dituzte. Izen-ematea: 675 71 03 44.

### DEIALDIAK

**Anoeta.** Alkartasuna jubilatuen elkarteak mahai jokoak antolatuta ditu azaroaren 9tik 13ra bazkide eta jubilatuentzat. Musa 4 eta 8 erregetara, tute, punto eta domino binaka eta txintxon banaka izango da. Izen-ematea egoitzan.

**Ibarra.** Ibarra Xake Elkarteak (IXE) atekak irekiko ditu ostegunero 18:30etik aurrera Benito Izaguirre kultur etxean jolastu ahal izateko.

**Tolosa.** Herrian dauden Gobernu Kanpoko Erakundeek Udalaren diru laguntza eska dezakete hilaren 15a bitarte Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuan 10:00etatik 13:00etara (ostegunetan ez). 943697460.

**Villabona.** Oinkari taldeak azken bi saioetako DVDak salgai jarri ditu, bakoitza 10 eurotan eta biak 15 eurotan. Astearte eta ostiraletan Txermin auzoan Jesusen Bihotza ikastolaren ganbaran eros daitezke 18:30etik 22:30era.

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** 2004ko San Bartolome jaietako argazkiak Kultur Etxean.

**Tolosa.** Nerea Lopez Lanzeta. Koadroak. Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Maria Luisa Irastorza. Koadroak. Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** David Barandiaranen margolanak Sorron dendan.

**Villabona.** Aitor Garmendia txirindulariaren 2004ko denboraldiari buruzko argazkiak. Gurea zineman.

**Zizurkil.** Argazki zaharrak. Atxulondo kultur etxean. Bihar da azken eguna.

### HITZALDIAK

**Alegia.** Moira Zeberio: Komunikazioa eta adiskidetasuna, bizimodu osasuntsurako giltzarriak. Jubilatuta elkartean 16:30ean.

**Tolosa.** Edorta Kortadi arte adituak *La religiosidad de las ermitas marianas* izeneko hitzaldia emango du Santa Maria parrokiako etxean. 20:00etan.

**Tolosa.** Antxon Agirre Sorondo adituak *La religiosidad popular en Euskalerra: desde la prehistoria hasta nuestros dias* hitzaldia emango du diapositibekin 20:00etan Santa Maria parrokiako etxean.

**Villabona.** Mahai-ingurua txirindulari profesional hauekin: Iban Mayo eta Iñigo Landaluze (Euskaltel) eta Alberto Martínez (Relax).

**Moderatzaile:** Xabier Ugalde. 20:00etan Gurea zineman Irrentziren txirindularitza astearen barruan.

**Villabona.** Maria Teresa Gaztariaga Gipuzkoako Politikako nutrizionista: *Produktu biologikoak eta transgenikoak, produktu osasungarriak?* Biltoki jubilatuta elkartean 17:00etan.

**Villabona.** Omenaldia egingo diote bihar Aitor Garmendia txirindulari ohiarri Gurea zineman 20:00etan. Txirindulari Astearen baitan.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Petti eta Amodioren kontzertua bihar 22:30ean Bonberenean.

### ZINE-KLUBAK

**Ibarra.** *Antes que anochezca.* Gaztetxean 21:45ean.

**Tolosa.** *Vias cruzadas.* Leidor zineman 21:30etik aurrera.

# Denok dantzara!

**AMAROSZ** ▶ Zahar eta gazteei, emakume zein gizonei irekita dago Amaroizko Dantza Taldea; ostegunetan biltzen dira



Amaroz Dantza Taldeko dantzariak eta musikariak aurtan San Blas auzoko jaietan egindako saioan. HITZA

### ERREDAKZIOA

**D**uela gutxi, urriaren 21ean, heldu zioten ikasturte berriari Amaroizko Dantza Taldeko kideek. Ostegunero jardungo dute bere entseguetan, iluntzeko 20:30etik aurrera, Amaroizko Auzo Elkartearen lokaletan —Amaroz jatetxearen gainean— helburu nagusi honekin: euskal dantza ikastea (*fandangoa, arin-arina, Larraindantza, nafarrak*, etab.), giro alai eta jatorrean.

Taldea gizon eta emakumez, zahar eta gaztez, osatua dago eta Amaroizko festetarako euskal dantzaren bat prestatzeko ohitura hartu dute urtero. Azken prestatutako saioa, Nafarroako dantzeekin osatutako emanaldia izan da. Baina urtean zehar, Amaroiztik kanpo, beste dantza emanaldi batzuk ere izaten dituzte taldekoek: Inauterietako Zaldunita bezperako desfilea Tolosan, San Blas auzoko jaiak otsailan, Ibarra-ko gazte festak ekainean, Arri-ko festak udan...

Dena den, norbaitek dantzan ikasi nahi bai, baina gero ez badu emanaldi publikoetan parte hartu nahi, ez du inongo eragozpenik izango ostegunetako saioetan parte hartzeko beste taldeekin batera.

Taldea irekia da eta atekak zabalik daude euskal dantza ikasi nahi dituen edonorentzat. Gonbitea egina dag: ostegunetan Amaroizko Auzo Elkartearen lokaletan. Ea jendea animatzen den. Probatu gabe ez geratu behintzat. Zahar eta gazte, denok dantzara!

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Ander Jaular Arancegui.  
Gaur urtebete. Zorionak eta muzu handi bat familiaren partetik.

## HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!